

IZPERIAK ERATZEKO

Burubide bat edo beste

Euskaltzain urgazle batek or-emenka bilduriko izpeñi-mordoxkak, egokienak autatzea eskatuz, eskue-taratu zitzaizkigunean, lenengo astiunetxoan banan banan izpeñi oriek irakurten asi nintzan: *Teatro*, biltoki ta antzoki; *Escenario*, agertoki, iruditegi ta antzerki-gela... ¿Zein autatu bear izango otedut? Beriz ere irakurri... ta alpeñik: buruak, ilunaldi edo gogoñaldi edo antzu-egun zuelako noski, etzidan beintzat erabaki-txinpart bat ere ematen. Gogoia nolabait alaitzeko Lavignac-en *Histoire de la musique* irakurtzen asi nintzan. Bateko Haydn, besteko Mozart, Beethoven gero... pozik ari nintzan nere maisu aien beñiak artzen. Onetan jtrapal euskerazko neologismo-arazoak eta Beethoven-en lan bat nere burmuñ-artean nolabait alkartu zitzaizkidan. Lavignac-en liburu eder oñek beñi auxe dakar: azken aipaturiko musikalari andi ark Austriako uriburuan, *Tonkünstler-Societät* zertzaion baltzuak eskatuta, bere lenengo lanak agertu zituela. Latinoen *societas* egun aietan Vienan *Societät* zan, egun auetan beñiz *Gesellschaft*. Beethoven-en lan asikin aiek *Burgtheater* izena zuen teatruan entzunak izan ziran. Greziañen Theatron Erómarak *Theatrum*, Alemanak Beethoven-en egunetan *Theater*, gero *Schauplatz*, orain beñiz ere *Theater*; Frantziañak *Théâtre*, Ingelesak berdín *Theatre*, Italiañ ta Españiñararak *Teatro*. Guk, Eróma ta Berlín ta Viena ta París ta Londres ta Madrid gutxitzat artuta edo, *teatrua* lenago bezela esan-beañean, *Biltoki* ta *Antzoki* ta *Antzerki* sortu ditugu.

Lavignac-en *Histoire* eder hura bere tokiratu nue-neko, nere buru len iletsu zen onek «itz beñiak era-tzeko burubide bat edo beste» ren ernamuña eman zidan. Iru-lau bat egunez onetan ari izanik, aurtengo azken-batzar onetarako ziribofo au agertzea gogoak eman zidan (1).

Lenengo burubidea. Ezkaitezen izpeñi-zalegi izan. Europako eñi guzien artean izpeñitsuena, nere ezaupidean beintzat, *Ungaria* da. Aitzina bere mintzon (izkera) ezomenzan aberats. Gero Asiako Turkoengandik eta Eslavoengandik itz asko artu omenzituen, baita aleman ta latiñetik ere. Amasei ta amazpigarñen mendean Pazmany Ungariako artzobispuak ango prosa-ri indarñik andiena eman ziola diote. Bere urñ agertu ziran-idazleak itz arõtzak kentzen asi ziran. Moritz Hoffman deritzaion irakasle aleman baten liburu polit bat dut eskuetan. *Ungarisch ohne Lehrer* du izena (Ungariako izkera irakasle gabe). Ona emen liburutxo onetatiko itz batzuk.

Alemaneraz	Ungarieraz.
Elektrische maschine	Villa mosság.
Mineralien.....	Villamos gep.
Ammoniak	Légeköneg.
Sakrament	Szentzeg.
Theater.....	Színház.
Kinematograph	Mozgokep.
Telegraph	Táviró.
Telephon.....	Tárbeszélő.

Argiro dakutsutenez alemanen itz oriek edozein es-

(1) Burubide auek erakusten asi baino lenago oar bat egin beafa naiz. Lantxo onetako adibide (ejenplu) geienak Arana Goirirenak, Añiandiagarenak eta neronenank dira. Ni baino asmalari ugariagoak izan ditugu, ta ez gutxi, gure egunetako euskalarien artean. Egin ditudan aleginak gora-bèra ez tüt bestek egindako izbeñi-zefendarik eskuratu ál izan. Bestela inoren izenak nireak baino maizago aipatuko nituen, batez ere akatsik erakustea eztenean.

paiñiafiek ulertzekoak dira. Ungariako oriek ¿zeinek ordea ulertu? Budapest-aldean, Euskaleñian bezelaxe, belañi minberadun edodira gizonak. Aiek ere noizbait *elektrizitãt*, guk elektrizidatea bezela, esan izango zuten. Eztakit beren arteko zeinek itz beñi *Villamos-sãg* ofetarako eratu zuen. Gure artean «luz elãctrica» adierazteko *tximistargi* zeinek sortu duen badakit ordea: Ondañoako eñiak. Guk oien antzera geron ikastetxeak bageneuzka, orduan, ongi yonak izango lirake gure gurasoen *elektrizidade*, *amoniako*, *sakramentu*, *teatru*, *telegrafu* ta lagunak. Baiña gerok nai ta bear genituzken ikastetxeok ezlitugun artean, ezkaitezen itz beñi-zalãgi izan.

Onezaz gaiñera au ere gogoan artzekoa da. Erderazko itzak euskerazkotzat entzuteak askori belañia mintzen digula egia da. Beste aldetik, ordea, itz beñi askok, geienak noski, amar irakurleren artean zortziri begietan min ematen die. ¿Onik baiño kalterik geiago ezotedio euskerari egin gure egun auetako beñi-zalãtasunak?

Erara datozkigu Juan Antonio Mogel-ek bere *Confesio ta Comunioco...* deritzan liburuan dakazkien itz auk. (1) «Euskerari eratxi zaizka erdaldunetatik itz ez gutxi; baña adituaz ta oituaz euskerazkoak bezain ongi aditzen diranak: ta oiek utzi bear ezlitugu ta bear bada noiz edo befiz obeko da onelakoak usatzea euskerakoak baño, batez ere Eliz gauzãtan ta gure animen salbazioari dagozten egikarietan. Onela itz egiten digu Maisu izen andiko onek. (Lafamendirenak bidedira goragoko itzak). Eta egia esateko Elizak beretu ta konsagratuta bezela dauzka itz asko dotrina santua erakasteko. Ez dira bada utzi bear izen oiek: *Bateoa*, *Konfirmazioa*, *Komunioa*, *Konfesio* edo *Penitentzia*, *Oleazioa*, *Ordena* ta onelako Eliz-itz asko igaro diranak Kristau-efi guzietako itzkundeetara. Oen ordean esan ditetze itz euskarazkoak, ordea guzia nasitzea da ta ez adierazo-

(1) *Confesio ta Comunioco...* XI ta XII.

tzea gauzaak bear bezala. Esaten badet nik *Bautismo-orde Garbikuntzako* (1) Sakramentua egia esango det, baña ez ziurki ta bear bezela azaldu, zeren garbitzea zabalitzen da gauza askotara, befiz *bateatzea* ematen zaion sentidu edo esan naian gauza bakar ta guziak aditzen dutenera.

Beraz erakeria edo afotasun kaltegarria da animako gauzeetan ez jafaitzea arturik dauden Eliz-itzai.

Bigarren burubidea. Izpeñi bat sortu-orduko berari dagokion zârrik oteden yakin dezagun. Mogelek etzuen erderazko «sala» tzat *gizategi* aterako Plentzia aldeko *etsari*-ren berri norbaitek eman balio. Ezta Arana Goirik *lokarin* (Larāmendik *eguerdiera* eratu zuen) ere etzuen asmatuko eñiak «siesta» adierazteko *biao* duela yakin balute; «escudo» rentzako *ikurdi* ere ez, Larāungo *mazmaño* belañira eldu balitzakio; ezta «precio» ren ordezeko *saneuñi* ere, Mundaka-Bermeoetako *domu* belañiratu baliote; «redil»i dagokion *artegi* ezagutu balu ere, etzuen *ardoki* eratuko. Mundakar zañen arteko *Baltzu* ezagutu izan balu etzuen Sociedad adiarazteko *Bazkuna* aterako.

Arana Goirik berak «familia» adierazteko *sendi* ta Mogelek *etxadi* etzituen argitaratuko, Gipuzkoa-aladen *Azkazi* (Lamina-artean eta, aidegoa eztelarik, erdi ilik bazen ere) bizi zela yakin balute (2). Nik nere lantxoetan «las revueltas del camino»-tzat *bidearen ukondoak* esan izan dut; ez, baina, lengo neguan Luzaidetik Oñeagara eraman ninduanaren aotik ikasi nuen-*ingurada* lēnago entzun izan banu.

Irugarren burubidea. Itz berriaren gaiak ezagunak eta egiazkoak izan bitez. Ezta oñetarako ezbaiko gairik artu bear, Arana Goirik «bandera»-zat *ikuñin* ta

(1) *Garbituntzako* dio atsaz bat eginez.

(2) Badira *familia*-ri dagozkion beste bi ele ere: *Supizgu* Eñonkarin (erderazko *hogar* egokiago adierazten du) ta motzaille edo ijitu-artean *eñoialdi*. Nonbait *etxadi* esaten du eñiak ere: Legazpin ta beste nonbait.

«sakramento» adierazteko *ikurton* eta «significar» en ordez *ikuñi* ta «escudo» *ikuñdi* ta «lema» *ikuñitz* ta «sello» *ikuñatz* ta «señal» *ikurtz* ta «señalar» *ikurtzau* asmatu zituenean ¿zein eritan, zein euskalkitan ikusi otezuen itz beñi orien oiñgai (elemento fundamental), *ikur?* *Irakuñi* «leer»-en eraietatik atera zuen.

Alemanen izkera eta gurea alkarén antz gutxikoak dira. Itz bat badute, orégatik ere, *lesen*, gure *irakuñi*-ri nolabait dagokiona. *Lesen* orék bi zentzun ditu: «desgranar» ta gainera «leer». Gure *irakuñi*-k ere berdin: «desgranar ta leer». Bai aiek eta bai guk liburuak baino lénago milaz urteak lénago baba ta babeñun, okaran ta basakaran irakurtzen genituen. Arana Goirik au yakin balu, babeñunketa orétan etzuen *sakramento* ta *escudo* ta *bandera* orientzako gaia ikusiko.

¿Zein oteda Abandoko euskalariak sortutako itz auen oingaia? *Aimi* tomate (*ari-bi*-tik artu zuela dio berak), *gedin* vocal, *kulatz* punto.

Laugarén burubidea. Gai bakoitzaren zentzuna zeatz ezagutu bear da. Nik nere sakel-iztegitxo egi-torduan enekian orain bezela *-gu* atzizkiaren indaño noraginokoa den; eta orégatik, oilo baten lumapetik txito-artean âtakumeren batzuk atera oi diran gisa berean, nere lumapetik ere beste itz beñi batzuen artean trakets auek argia ikusi zuten: *elgu* hospital, *añozku* posada, *landergu* hospicio. *Gu* atzizkia erderazko «lugar» da, baina ez «lugar de cosas», «lugar en que se hace algo» baizik. *Ikasgu* escuela, *ikusgu* mirador, *jaunargu* comulgatorio, *idazku* escritorio... bidezko asmuak dira; ez ordea *elgu*, *añozku* ta *landergu*. Lugar de enfermos, ezta *elgu*, *eltegi* baizik; lugar de huéspedes ezta *añozku*, *añoztegi* da; lugar de desvalidos ezta *landergu*, *landefetxe* dugu.

Boskañen burubidea. Itz beñiak zeatz sortzeko, gaiak ongi ezagututa gero, *Derivación* ta *Composición*-legeak zuztraiz ta zearo yakitea da gauzarik bea-rena. Oñatiko Batzar eder andi aren aurretik iñork etzuen, nik dakidala, erakutsi gure *Fonetikak* lege banâk edo bereziak dituela *Morfologiako* lau edo bost aldêtan. Zuberon ta Eñonkarin ez beste euskalki guzietan *n* ta *l*-ren ostean *petaca bodega* itzultzen da *deklinazonean*, andik landa ez. Arana Goirik, onen beñi etzekielako, desde arriba y lo de arriba *goitik eta goikoa* ziran bitartean desde aquí y lo de aquí *emendik eta emengoa* dirala ikusirik, *Derivacionera* ere lege ori eramanez bidegabeko itz beñi auek asmatu zituen: *Obenti*-ren ordez *obendi* pecador, *txinki*-ren ordez *txingi* joya; eta era berean *euzkelgi* ta *izkelgi* ta *sengi* hijo naiz hija, *eunki*-ren ordez *ingi* papel, *zeindasun* cualidad *zeintasun*-en tokian eta abar.

Gi-dun itz askok *Derivación* ta *Composición* orietan atzenki ori galdu ta artizkitzat *t* artu oi dute. Argi-tik *artuñatzean* al romper el día, *begi*-tik *betazal*, ogitik *otondo*... eta abar.-*gu*-dûnak ere bai: *sagu*-tik *satitsu*, *sator*, *satandera*, *satarte*... ¡baina *go*-dun itz bat ez batek eztu oñelako aldakuntzerik izaten! ¿Zerengatik ote da? ¿*l* ta *u* oriek «vocales débiles» diralarik igeskoñak diralako? Onela dirudi. Gutxi dira *go* atzean duten itzak. *Gogo*-tik eñiak *gogoargi* alegre, *gogoarin* casquivano, *gogoanbear* recelo, *gogoilun* triste, *gogobera* demente atera ditu, bainan ez *gotargi*, *gotarin*, *gotanbear*, *gotilun*, *gopera*. Au gora-bêra Arana Goirik *gogo* ointzat artuz *goteun*, *gotzon*, *gotzain* ta besteren bat atera zituen. Onela sortuak dira *bitxain* ta *bitxabal* ere.

Seigañen burubidea. Eñiaren itz zâñak nola era-
tuak diren ikusi ta ikertu bear du izbeñi-zaleak, itz

zâfarekin, eta *ametz* eta *aitz* (edo *atx*) ta onen antzeko itzen uringo *bodega*-dun atzizkiak (sufijos) *petaka*-dun egiten ditu. *Basabe* ta *Arizpe*, *Sagardoi* ta *Ameztoi*, *Arandui* ta *Astui*, *Uribañen* ta *Haspañen*, *Urigoiti* ta *Azkoiti*, *Mantzarbeiti* ta *Azpeiti*. Bada, oregatik ere, atzizki bat (*dun* da atzizki au) aurreko aitzak gogoñak izanañen inoiz ere *tun* itzultzen eztena (1). *Lebazdun* merlucera, *gazdun* cosa que tiene sal, *bisdun* espumoso, *burdinosdun* que suena a hierro: eñiaren itzak ditugu. Izbeñi-arteon bi ezagutzen ditut, *dun* azkenkitzat duten itzak, eñiaren aurka eratuak. Bata Arana Goiri-rena: *ugaztun* mamifero; besteñ Eketarena (*Ekeñ* Lekeition *neu*-ren ordeñ esan oi zan nere gaztezaroon): *elaztun* elocuente. *Ugazdun* ta *elantzedun* izan bear lukete. (*Elantze* elocuencia ere Eketaren izbeñia da). *Eleder* elocuente (AN-ezteibar).

Zazpigañen burubidea. Aldiz aldiz izate bizidunen izenak gauzai ematea egingañi ta egikizuntzat daukat. Onetan eñiak berak erakusmena ta aurreapidea ematen dizkigu. Erderazko «portaluz» *argimutil* esan oi zuten gure asabak. «Estrella de mar» deritzaion isas-belarki bat *Maria Talako* da Lekeition.

Onelaxe nik erderazko «higrómetro, barómetro, termómetro, pluviómetro, anemómetro, cronómetro»-ren bigañen gaia ez tut itzuli nai izan aintzinako *zeñen* medida de longitud eta Arana-Goiriren *neurkin* aintzat artuz. *Azti* «adivino» bide dudala, ona nolako izbeñiak eratu ditudan:

Higrómetro *ezazti* (ezo «húmedo» bañta),

Barómetro *egurazti* (egu atmósfera-tik),

Termómetro *goñazti* (goñ au Zuberon ta Benapañoan *gorpera* «sensible al calor» delako).

(1) *Morfología Vasca*-ren 182-gafen ofialdean ikusi dezake au zargatik oteden.

Pluviómetro *eulazti*,
Anemómetro *aizazti*,
Cronómetro *aldiazti*.

Zortzigafen burubidea. *Cæteris paribus* edo batez beste izbeñi laburak luzeak baino obereskariago (preferibles) dira. Oñegatik ere neretzat labor ilun ta ulerkaitzak baino naiago ditut luzeak, argi ta ulertaraz diranean. Alemanen izbeñiak geienak luze-luzeak izanaren, eñaz ulertzekoak izan oi ditugu, ikolpen (contracción) ta aldakuntze gabeak baitira.

Gure lankide izan zen Broussainek eñaztasun ta zaletasun andia zuen izbeñigintzarako. Bere asmuak ordea ikolegi (demasiado contraídos) ateratzen zituelako ulerkaitz ziruditen. Nere lantxo onen geigaritzat pozik artuko nituke berak nonbait utzi izango zituen izbeñi-zeñendak. Arana-Goirik ere noiztanka egiten zuen au. **Txasko egin** erderazko «charlar» **itz asko** egitetik artu zuen. *Txonitz* homilia *etxedeun*-itz-en laburpentzat zerabilen. Geienetan, ordea, Broussain baino ulertarazago zan bere izbeñietan. *Txadon*, *Elizaren* ordez, asmatu zuenean, neri *Albistari* sortu nuenean bezela gertatu zitzaion: uste etzuela erdalitz bat artu zuen gaitzat: *done edo deun*. Eketak, **Euskalzale** yaio zenean, *Albistari* asmatu zuen erderazko «Revista-tzat, izbeñi onen oingai erderazko *a la vista* zela oartu gabe. Ni mutiko nintzan egun zuri aietan *neurëa albistëa* esan oi genduen Lekeition, itzaso zabalean ontzi bat lenengoz ikustean. *Albista* (a la vista) erderazko «noticia» tzat artua izan zan eñian: eta ortik yaio zan *Albistaria*.

Laburpen ta ikolpen oriek, eñiak nonbait eta itzen batzuetan oitzen baditu, erabili ditezke. Aranak *Txadon Etxe done* laburtuz artu zuenean, eñiaren *Etxebarri*-ren ordezko *Txabarri* artu izango zuen eredutzat.

Nik, erderazko «fecha»-tzat *itegun* eratu nuenean ere, Baztan-aldeko *in (egin ikoldua)* aintzat artu nuen.

Bederatzigarfen burubidea. Maizenik, eriak eraturiko itzak, izberriak izan ta ere, yakintsuen burutikoak baino obereskariago (preferibles) dirudite. Bizkaiko basauritxo batean, Larabetzun, edozein ezpainetan bizi da *orpatx* (yatoriz aberen atze-aldeko beatz txikia) erderazko «imperdible» (alfler imperdible) adierazteko. Nere Amak *tiriñak ots egin dau* esaten zuen erderazko «el timbre ha sonado» bezela. Erriaren izberriak faragari direnean, eztitugu ordea aintzat artu bear. «Automóvil» tzat iru izberri dazauzkit. Atharutzen entzuniko *taranta*, Oizandioko *artomutil* ta Lapurdi aldekoen batek eraturiko *beribil*. Azkoitin *Antonio Moril* omen diote. *Peño Batiste* Leitzako *telegrafistari* an bereko atso batek esaten zion. *Akoñituak*, Eucaliptus adierazteko, neronek entzun diot Lekeitioko arantzale bati.

Askotan eztu batek igari al izaten zein den erriarena ta norbaitek asmatua zein. Humbolt ek «Adiciones al Mitridates de Adelung» deritzaion geigarrian erikotzat dakarzkigun bi itz nere ustez izberriak dira ta euskalariren batek egiñak gainera. Ona emen beraren baietza: *Echt vaskische Wörter für Stimme sind Aozkia und (Labort) oihuantza*. Euskera utsezko itzak, erderazko «Voz» adieraztekoak, dira *Aozkia* eta Lapurdin *oihuantza*» Baietz onek ezbaian jafi ninduelako, Toursko Iztegian bigarren itz au argitaratzean, Lapurdikoa ofezen erakusteko maratxo bat aldamenean ezari nion.

Amargarfen burubidea. Beriren berri itzak asmatu baino obe da itz ezagunetarik atzizki batzuen bidez erañariak (derivados) ateratzea. Au erañago ulertzeko, jafi ditzagun, lenengo, izberri osoro berri diranak, gero erañorpenez (por derivación) eraturikoak.

Arana Goirirenak dira auek: *Agaka* abecedario, (1) *abeñi* patria, *abenda* raza, *abeslari* cantar, *arpi-de* suscripción (Eketak *euspen* erabiltzen zuen), *Ari-toaga* Aries (signo del zodiaco), *Aztaga* Libra, *Ake-řaga* Capricornio, *Kařamařoaga* Cáncer... eta abar.

Beste auek Eketarenak dira: *Elatz* tipo de imprenta; itzez itz «rastros de palabra»; *elazketa* impresión, *elazki* cosa impresa, *elazkin* ejemplar, escrito reproducido, *elazkitu* imprimir, *elaztari* impresor, *elaztegi* (Broussainek eman zidan au) imprenta... ta beste batzuk. Orain azalda ditzagun lēn oitu gabeko itz eratorriak (derivados): *Sariketa* distribución de premios (2), *araketa* * escrutinio (*Aratu* ta *arakatu* registrar Bizkaian esaten dira), *ikuzmai* * lavador, mesa de lavarse; *itsasaldi* * marea, *itsaslapur* * pirata, *izkelzain* * académico, *biřeregi* * reedificar, *birsaldu* * revender... e. a. Eketarenak dira izartxodun auek.

Amaikagařen burubidea. Erdera batzuetan bezelatsu gūre izpeři batzuek tankeratzea egokitzen dardukat. Espaiņiaren «mareo» frantzesez *mal de mer* da, euskeraz *itsasmin* izan diteke ta «marearse» *itsasmindu*. Legoreko mareo ta marearse *zorabio* ta *zorabiatu* dira. Bidasoatik aronzko gure anaiak frantzesen *pomme de terre*-tik artu izango dute beren *lur-sagařa*. Marsella-aldeko *pomme d'amour* Frantzia osoan zabaldua balego, nere ustez «tomate» *maite-sagařa* izendatuko lukete Lapurdi-aldean. Uřengo izpeřioak alemaneraz tankeratuak dira:

(1) *Agakaski*... V. Ortografía del euskera vizcaino.

(2) *Txapelketa*-ri ezteritziot ain egoki. *Txapelka* Bizkaieraz jugar a bolinas bezela da ta *Txapelketa* juego de bolinas izan bear.

Erderaz	Alemaneraz	Euskeraz	Itzez itz
Acróbata	Seiltänzer	Sokifalari	Danzante de cuerda
Aljofar	Perlensamen	Pitxazi	Simiente de perlas
Tisú	Silberstoff	Zilarmintz	Membrana de plata
Plancha	Eisenblat	Burdinol	Tabla de hierro
Veterinario	Tierarzt	Abelatxeter	Médico de animales
Tisú	Goldstoff	Uremintz	Membrana de oro
Hidra	Wasserschlange	Ursuge	Serpiente de agua
Gazpacho	Wassersuppe	Urzaku	Sopa de agua
Drama	Drama	Drama	Drama
Ópera	Oper	Opera	Ópera

Eztitut eskuratu al izan gure lankide Olabidek egindako izpeñiak, berak ere eskueran ezpaitu. Bat edo bestetxo or-emenka bildu al izan ditut. Bere itz polit *itzur* (*itz zur*). apotegma «sentencia» erdalitzen batetik tankeratu otedu? ¿*Burni* hierrotik *gurni* acero bezala ezodeditu besteren batzuk egin?

Amabigañen burubidea. Izpeñi bat egिताurean ikus beza bakoitzak itz orek euskalkiren batean beste zentzunik oteduen. Duvoisin kapitainak bere liburutxo polit *Laborantzako Liburua* Bonaparteri zuzentzean

iru izpeñi zentzun bikoizdunak sortu zituen: *gortasuna* «sordera» alteza bezela. *¿Gure Jaun* Lekeition «Dios» dena serenísimo-tzat otedakar? eta *bizar* «barba»k erderazko bravotzakoa dirudi, bizarro; *eskupeko* Bizkaian «propina, pourboir» Duvoisinek «súbdito» bezela artu zuen. Ona emen guzia.

Beroñen gortasunari gure Jaun eta printze bizar Luis-Luziano Bonaparteri eskaldunen amodioa, gogoia eta bihotza eta ororen (1) artetik beroñen eskupeko aphañ bainañ bethi eskerdun Duvoisin Kapitainarenak.

Bilbon, 26. XI. 1926.

AZKUEK.

(1) Utsez *ordæn* dio.